

## **IZAPIDETZEA: EAEn zirkulazio-murrizketak dauden datetan eta ibilbideetan zirkulatzeko baimen bereziak**

### **Izapidetzea**

#### I.- Bulego izapidetzailea.

- Baimen-eskaerako ibilbidea, zirkulazio-murrizketa ezarrita daukana, hasten den edo igarotzen den lurraldeko Lurralde Bulegoa da eskuduna.

#### II.- Izapidetze elektronikoa

- Elektronikoki izapidetu behar dute legez horrela izapidetzera behartuta daudenek eta beren ordezkariak Ahalordetzen Erregistro Elektronikoa eman dutenek. Gainerako interesdunentzat izapidetze elektronikoa borondatezkoa da (39/2015 Legearen 14. art.)
- Interesdunentzako sargunea Eusko Jaurlaritzaren Egoitza Elektronikoa izango da, [www.euskadi.eus/egoitza-elektronikoa](http://www.euskadi.eus/egoitza-elektronikoa), Nire Karpeta, hain zuzen.

#### III.- Eskabidea

- Eskabidea eskuragarri egongo da Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoa, ez beste inon, eta hauen bidez sartu ahal da: [www.trafikoa.eus](http://www.trafikoa.eus) edo [www.euskadi.eus/egoitza-elektronikoa](http://www.euskadi.eus/egoitza-elektronikoa). Eskabidea telematikoki aurkeztu ahal da edo aurrez aurre Zuzeneaneko bulegoetan.

#### IV.- Dokumentazioa:

- Ibilgailuen Erregistroan inskribatuta egon ezean, ibilgailuen zirkulazio-baimena (Espainian matrikulatu gabeko ibilgailuak).
- Ibilgailuen errentamendu-kontratua, baldin eta Ibilgailuen Erregistroan inskribatuta ez badago edo ibilgailua garraio-baimenari lotuta ez badago.
- Premiazko edo nahitaezko zerbitzuak egin beharra dagoela justifikatzen duen dokumentua.
- ADR ziurtagiria (ibilgailuek salgai arriskutsuak garraiatzen badituzte).
- Ordezkaritza: Hori bakarrik eskatuko da, interesduna elektronikoki izapidetzera behartuta ez badago edo beren ordezkariak Ahalordetzen Erregistro Elektronikoa eman ez badu.

#### V.- Tasa:

- Ordainketa-gutuna aterako da, eskabideari alta eman ondoren eta izapidetu aurretik.

- Tramitagunek sortu eta Nire Karpetara igorriko du, elektronikoki izapidetzen bada. Aurrez aurre izapidetuz gero, ordainketa-gutuna posta elektronikoz igorriko da.
- Interesdunek ez dute nahitaez ordainketa-agiria aurkeztu behar, hori SIPCAN kontsulta baitaiteke, baimena atera aurretik. Ordainketa-agiria aurkeztu nahi badute, Nire Karpetaren bidez edo aurrez aurre aurkeztuko dute.

#### VI.- Jakinarazpena:

- Tramitagunek beti Nire Karpetara igorriko ditu interesdunari jakinarazi beharreko izapideak, nahiz eta interesdunak paper bidezko izapideak aukeratu (39/2015 Legearen 41.6 art.). Paper bidezko izapideetan, gainera, posta bidezko jakinarazpenak Tramitaguneren bidez egingo dira.

#### VII.- Hutsen zuzenketa:

- Beharrezkoa izanez gero, interesdunari eskatuko zaio aurkeztutako eskabideko edo justifikazioko datuak zuzentzeko. Errekerimenduari kasu egin ezean, interesdunak atzera egin duela ulertuko da.

#### VIII.- Ebazpena:

- Ebazpenak eskabidea onartu edo ukatuko du, edo interesdunak atzera egin duela deklaratuko du.

#### IX.- Errekurtsoa.

- Ebazpenaren aurka gora jotzeko errekurtsoa jarri ahal da Trafikoko zuzendariaren aurrean.